

Irakasle agurgarriak,

eGelaren erabilera orokortu egin da UPV/EHUUn, eta gela horietako datuen segurtasun-kopien bolumena eta kopurua gero eta handiagoa da. Hori dela eta, segurtasun-kopia zaharrenak ezabatzeko protokolo bat ezarriko da, espazioa askatzeko eta zenbait prozesu arintzeko.

2023ko urtarrilaren 31tik aurrera, 4 ikasturteik gorako antzintasuna duten segurtasun-kopiak ezabatuko dira. Eta 2023tik aurrera, urtero, ekainean, hurrengo ikasturtean lanean hastean, ikasturte zaharrenari dagozkion segurtasun-kopiak ezabatuko dira, azken lauak beti eskuragarri izateko.

Hau da, 2023ko otsailaren 1etik aurrera, Ikasgela Birtualen Kudeatzailean (<https://gestion.ehu.eus/gav>) honako ikasturteei dagozkien segurtasun-kopiak bakarrik egongo dira eskuragarri, eGelan kargatzeko:

- 2018/2019
- 2019/2020
- 2020/2021
- 2021/2022

Eta 2023ko ekainean 23/24 ikasturteko gelak eskatzeko epea irekitzen denean, eskuragarri egongo diren segurtasun-kopiak honako ikasturte hauetakoak izango dira:

- 2019/2020
- 2020/2021
- 2021/2022
- 2022/2023

Hala ere, gaur egun dauden ikasturte zaharrenen segurtasun-kopiak gorde nahi dituenak 2023ko otsailaren 1a baino lehen deskargatu ahal izango ditu eGelako segurtasun-kopien blokearen bidez, **"NOLA DESKARGATU KOPIAK EZABATU AURRETIK?"** atalean azaltzen den bezala.


## **ZERTAN ERAGITEN DIT ALDAKETA HORREK?**

eGelako ikasgela bat irekitzean aurreko ikasturteko edo duela 4 ikasturteko edukiak kargatu nahi badituzu, ez dizu eragingo eta orain arte bezala egiten jarraitu beharko duzu, Ikasgela Birtualen Kudeatzailearen bidez.


Duela 5 ikasturte edo gehiagoko edukiak kargatu nahi badituzu, aldeztu aurretik dagozkion segurtasun-kopia deskargatu beharko duzu, dokumentu honen **"NOLA DESKARGATU KOPIAK EZABATU AURRETIK?"** atalean azaltzen den bezala, eta edukiak kargatzeko eskaera egin [EAZEN](#) bidez.

## NOLA DESKARGATU KOPIAK EZABATU AURRETIK?

1. eGelan sartu eta joan "Aginte-panela" atalera.



2. "Aginte-panelaren" eskuineko aldean, sartu "Segurtasun-kopien zerrenda" atalean.




- eGelako segurtasun-kopien blokean, pertsona bakoitzak gaur egun bere izenean dauden segurtasun-kopia guztien zerrenda aurkituko du, baita kopia horiek deskargatzeko aukera ere.

2018/2019 ikasturteko bigarren lauhilekoaren aurreko kopiak MBZ formatuan soilik deskarga daitezke. Ondorengo kopiak ZIP formatuan ere deskarga daitezke.

- MBZ formatua** berehala deskarga daiteke. Formatu honek ikastaroaren kopia zehatza eta osoa du, eta ikastaroa bere eduki guztiekin eGelan berrezartzeko aukera ematen du. MBZ formatuko fitxategiak ikastaroan matrikulatutako pertsonen datuak ditu, beraz, **ikaslearen datu pertsonalak dituen beste edozein fitxategi bezala zaindu eta babestu beharko da. MBZ formatuak ez du ikastaroko edukietara zuzenean sartzeko aukerarik ematen, aldez aurretik berrezarri gabe.**
- ZIP formatua** eskatu egin behar da, eta hurrengo egunean deskargatu ahal izango da. Deskargatzen den fitxategiak eGelako gelara igo diren fitxategi guztien kopia bat dauka. Bai irakasleek igotakoak, bai ikasleak igotakoak, adibidez, zeregin bati erantzuteko. ZIP formatua ezin da eGelan berrezarri.

MBZ fitxategia deskargatzeko, sakatu "MBZ deskargatu" (1); ZIP fitxategia eskatzeko, sakatu "ZIPa eskatu" (2).



- ZIPa eskatu bada, hurrengo egunean deskargatzeko aukera agertuko da.

